

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakariak Bizkarrezurraren Gaixotasunen Ikerketarako Elkartearen 26. Biltzar Nazionala zabaldu du

400 mediku inguru bilduko ditu ekainaren 1 eta 2an Iruñako Baluarte Jauregian

Viernes, 01 de junio de 2012

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak Bizkarrezurraren Gaixotasunen Ikerketarako Elkartearen (GEER) 26. Biltzar Nazionalaren zabalera ekitaldian izan da gaur goizean. Batzarra ekainaren 1 eta 2an burutuko da Iruñako Baluarte Jauregian 400 mediku eta osasunaren industriako 800 ordezkari ingururen parte-hartzearekin.



Barcina Lehendakaria GEER-en biltzar nazionalaren irekiera ekitaldian.

Gogoratu behar da bizkarrezurraren gaixotasunek eta, zehazki, gerrialdekoek eragin eta prebalentzia handia dutela, eta lan bajeen kausa ohikoenetarikoa direla.

Biltzarraren 26. edizioa Osasunbideako eta Clínica Universidad de Navarra-ko mediku talde batek antolatu du Ángel María Hídalgoz zuzendaritzapean. Azken hau ere zabalera ekitaldian izan da, baita Marta Vera Osasun kontseilaria eta Hani Mhaidli GEER Elkarteko lehendakaria ere.

Egitarrak jasotzen duenez, 78 hizlarik eta 22 moderatzailek hartuko dute parte. Gerrialdeko gaixotasunez, forma-anormaltasunez eta gaixotasun zerbikalez hitz egingo da, besteak beste.

Hitzaldiak batzorde zientifiko batek aukeratu ditu aurkeztutako lanen balorazio itxuaren bidez (egilearen izena ezagutu gabe). Jasotako lanen erdia aukeratu dira. Hori dela eta, egingo diren aurkezpenek maila handia izango dute.

Zabalera ekitaldia baino lehen, biltzar aurreko ikastaro bat burutu zen atzo, bizkarrezurraren kirurgiaren zailtasunei buruzkoa. Joan den urtean Salamancan burutu zen biltzarrera joandakoek eskatu zuten ikastaroa.

Bizkarrezurraren Gaixotasunen Ikerketarako Taldea (GEER) 1994. urtean sortu zen. 1983. urtean sortu zen Bizkarrezurraren Forma-Anormaltasunaren Ikerketarako Iberiar Taldea ordezkatu zuen. Gogora

ekarri behar da GEER-en lehen biltzar nazionala Iruñean egin zela 1986. urtean.